Bestelako Xedapenak

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

1407

AGINDUA, 2009ko otsailaren 18koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Udalek eta gainerako Toki Erakundeek Bakean eta Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntzaren alorrean garatutako Programak eta Ekimenak Diruz laguntzeko Laguntzak lortzeko deia egiten duena.

Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala (1948) garrantzi handiko erreferentzia historikoa izan zen; izan ere, lehen aldia izan zen instantzia unibertsal batek denei errespetatu behar zaizkien eskubideak aldarrikatu zituena, hartarako arrazoi bakarra gizakiak izatea izanik. Deklarazio horren ondoren, tresna zehatzagoak sortu ziren, hala nola 1966ko Nazioarteko Itunak. Itun horiek, eskubide zibil eta politikoez gain, ekonomikoak, kulturalak eta sozialak ere bildu zituzten. Berariazko hainbat hitzarmen agertu dira aldi berean (genozidioari, arraza-diskriminazioari eta emakumeen aurkako diskriminazioari, torturari, haurraren eskubideei, sexu-eskubideei eta abarri buruzkoak). Horri esker, batetik, giza eskubideen babesaren eremu substantiboa zabaldu da, eta, bestetik, eskubide horiek betetzea bermatzeko eta betetzera behartzeko mekanismoak hobetu eta zehaztu dira.

Baina eskubideak aldarrikatzeari eta eskubide horiek egiaz ezartzeko eta bermatzeko borrokari dagokionez, orain dela gutxi arte ez gara jabetu beharrezkoa dela giza eskubideen aldeko hezkuntzari buruzko lan sistematiko, koordinatu eta iraunkorra egitea.

Nazio Batuek bultzatutako eta Vienan 1993an egindako Giza Eskubideei buruzko Munduko Konferentzia hartu behar da inflexio-puntutzat. Konferentzia horren azken deklarazioan eta ekintza-programan zehatz-mehatz bildu zen giza eskubideei buruzko hezkuntza, trebakuntza eta informazio publikoa ezinbestekoak direla komunitateen artean harreman egonkor eta harmoniatsuak ezarri eta sustatzeko, baita elkar ulertzea, tolerantzia eta bakea bultzatzeko ere.

Vienako Konferentziaren ondorioz, NBEren Batzar Nagusiak, 1994ko abenduaren 23ko 49/184 Ebazpenean, Giza Eskubideen esferako hezkuntzarako Nazio Batuen Hamarkada izendatu zuen 1995-2004 aldia. Giza eskubideen esferako hezkuntzarako Nazio Batuen Hamarkadarekin hasitako lan eskerga horrek ez zuen denbora-mugarik ezarri nahi. Aitzitik, Nazioarteko Komunitatea mugiarazi nahi zuen, oinarri sendoak ezartzeko

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

1407

ORDEN de 18 de febrero de 2009, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se convocan ayudas destinadas a subvencionar programas e iniciativas en materia de educación para la paz y los derechos humanos desarrollados por Ayuntamientos y demás Entidades Locales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

La Declaración Universal de los Derechos Humanos de 1948 supuso un hito histórico de la máxima importancia por cuanto, por primera vez, desde una instancia universal se proclaman los derechos que a todas las personas deben serles respetados por el mero hecho de pertenecer a la condición humana. A dicha Declaración Universal pronto habían de seguirle instrumentos más precisos como los Pactos Internacionales de 1966 centrados tanto en los derechos civiles y políticos como en los de índole económico, cultural y social. La proliferación simultánea de Convenciones específicas sobre el genocidio, la discriminación racial o contra las mujeres, la tortura, los derechos del niño, los derechos sexuales, etc, han ido ampliando tanto el ámbito sustantivo de protección de los derechos humanos como mejorando y precisando los mecanismos de garantía y coerción para su efectivo cumplimiento.

Pero frente a la declaración de derechos y a la lucha inacabada por su implementación y garantía efectiva sólo recientemente se ha ido tomando conciencia de la necesidad de llevar a cabo un trabajo sistemático, coordinado y sostenido en el tiempo de educación en materia de derechos humanos.

El punto de inflexión debe situarse en la Conferencia Mundial de Derechos Humanos, auspiciada por las Naciones Unidas y celebrada en Viena en 1993, en cuya declaración final y programa de acción se toma definitivamente conciencia de que la educación, la capacitación y la información pública en materia de derechos humanos son indispensables para establecer y promover relaciones estables y armoniosas entre las comunidades y para fomentar la comprensión mutua, la tolerancia y la paz.

Como resultado de la Conferencia de Viena la Asamblea General de la ONU en su Resolución 49/184 del 23 de diciembre de 1994 proclamó el periodo 1995-2004 como Decenio de las Naciones Unidas para la educación en la esfera de los derechos humanos. La ingente labor iniciada con el Decenio de las Naciones Unidas para la educación en la esfera de los derechos humanos no buscaba desplegar un trabajo limitado temporalmente.

eta oinarri horien gainean etengabe eta iraunkortasunez aurrera egiteko. Horregatik, Hamarkada amaitzean eta programaren emaitzak ebaluatu ondoren, une honetan indarrean dagoen jardun-programa jarri zen abian. 2004ko abenduaren 10eko 59/113 Ebazpenean, NBEren Batzar Nagusiak Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntzarako Mundu Programa aldarrikatu zuen. Programa 2005eko urtarrilaren 1ean gauzatzen hasi zen, eta ondoz ondoko zenbait etapatan egituratu da, giza eskubideen esferako hezkuntza-programak sektore guztietan gauza daitezen sustatzeko.

Adierazitako korronte unibertsalak, gainera, oihartzun berezia du Europako eskualde-eremuan. Eremu horretan, herritartasunaren, balio demokratikoen, bakearen kulturan eta giza eskubideen arloan hezkuntza-alderdiak indartzeko kontzientzia bereziki pizten ari da.

Bakean eta Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntzaren alorreko Euskal Planak berariaz, bete-betean eta behin betiko txertatu nahi du Euskadi aurrez deskribatutako nazioarteko korrontean. Dagoeneko premiazkoa da gure gizartean garatzen ari den lana areagotzea eta lan hori zabaltzea, giza eskubideen aldeko borrokan diharduten nazioarteko erakundeekin eta gainerako eragileekin batera jarduteko. Izan ere, giza eskubideen kultura unibertsala da, eta gure Erkidegoak nazioartean koordinatutako ikuspegi batetik heldu behar dio gai horri.

Planak ezartzen du honako honek izan behar duela jarduteko lehentasunetako bat: bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntza lantzea udal-eremutik. Horren ondorioz, honako hau

XEDATU DUT:

1. artikulua.— Helburua.

1.– Agindu honen helburua Eusko Jaurlaritzak, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren bitartez, 2008ko ekitaldian emango dituen laguntzak arautzea da, betiere Bakearen eta Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntzaren alorrean ekimen eta jardueren proiektuak eta programak —Euskal Autonomia Erkidegoko udalen eta toki-erakundeen kargura daudenak— gauzatzeko laguntzak izanik.

Agindu honen helburutik at geratuko dira soilik sariak ematean dautzan jarduerak, programak edo ekimenak.

2.– Programak eta jarduerak 2009. urtean gauzatuko dira.

3.– Agindu honetan aurreikusitako laguntzak lehiaketa-prozedura bidez emango dira, aurkeztutako eskabideak ebaluatuta, betiere 6. artikuluan zerrendatutako irizpideen arabera eskabide horien artean hurrenkera jakin bat ezartzearren, eta puntuazio handiena lortu dutenak soilik esleituko dira.

Pretendía movilizar a la Comunidad Internacional para poner cimientos sólidos sobre los que ir dando pasos de forma continuada y sostenible. Por ello al finalizar el Decenio y fruto de la propia evaluación de sus frutos se puso en marcha un nuevo programa de actuación actualmente vigente. La Asamblea General de la ONU en su Resolución 59/113 de 10 de diciembre de 2004 proclamó un Programa Mundial para la Educación en Derechos Humanos que comenzó a ejecutarse el 1 de enero de 2005 y que se estructura en diversas etapas sucesivas con el objetivo de promover la ejecución de programas de educación en la esfera de los derechos humanos en todos los sectores.

La corriente universal señalada encuentra además un eco particular en el ámbito regional europeo en el que prende con especial incidencia la conciencia de reforzar los aspectos educativos en materia de ciudadanía, valores democráticos, cultura de paz y derechos humanos.

El Plan Vasco de Educación para la Paz y los Derechos Humanos pretende introducir a Euskadi de forma expresa, plena y definitiva en la corriente internacional descrita. Es ya urgente que la labor que se viene desarrollando en nuestra sociedad se intensifique y abra a una colaboración corresponsable con los organismos internacionales y demás actores en la lucha por los derechos humanos. Y es que la cultura de los derechos de la persona es universal y debe abordarse en nuestra Comunidad desde una perspectiva internacionalmente situada y coordinada.

El Plan establece como una de sus prioridades operativas el trabajo de educación para la paz y los derechos humanos desde el ámbito municipal. En su virtud,

DISPONGO:

Artículo 1.– Objeto.

1.– Es objeto de la presente Orden la regulación de las ayudas que el Gobierno Vasco, a través del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, otorgará durante el ejercicio 2009 para la realización de programas y proyectos de actividades e iniciativas en materia de Educación para la Paz y los Derechos Humanos a cargo de Ayuntamientos y entidades locales públicas de nuestra Comunidad Autónoma.

Quedarán excluidos del objeto de la presente Orden aquellas actividades, programas o iniciativas que consistieren exclusivamente en la entrega de premios.

2.– Los programas y actividades se llevarán a cabo a lo largo del año 2009.

3.– Las ayudas contempladas en la presente Orden se otorgarán mediante el procedimiento de concurso, evaluando las solicitudes presentadas, a fin de establecer una prelación entre las mismas, según los criterios relacionados en el artículo 6, y adjudicándose sólo aquellas que hubieren obtenido mayor puntuación.

2. artikulua.– Zuzkidura ekonomikoa.

1.– Diru-laguntzen Programa honetara bideratutako diru-kopurua hirurehun eta hogeita hamaika mila eta bat (331.001,00) eurokoa da, Euskal Autonomia Erkidegoko 2009. urterako Aurrekontu Orokorretan aurreikusitako partidaren kargura.

2.– Diru-laguntzaren zenbatekoa finkatzeko, Agindu honen 6. artikuluan ezarritako irizpideak erabiliko dira, eta aurkeztutako programa bakoitzean, onartutako aurrekontuaren % 85 ere ordaindu ahal izango da. Aurrekontu araztua onartutako aurrekontuaren % 85 da.

3.– Emandako diru-laguntzaren guztirako zenbatekotik, % 10 funtzionamenduko eta administrazioko gastuetarako izan daiteke, baina soldatak eta ordainsariak alde batera utzita, betiere programa garatzeko ezinbestekoak ez badira eta Azalpen Memorian horrela jasota ez badago.

3. artikulua.– Eskatzaileak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Udalek eta toki-erakunde publikoek eskatu ahal izango dituzte Agindu honen helburu diren laguntzak.

4. artikulua.– Eskabideak aurkeztea eta formalizatzea.

1.– Deialdi honetan parte hartzeko interesa duten udalek eta toki-erakundeek eskabideak behar bezala beteta aurkeztu beharko dituzte, Agindu hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita hilabeteko epean, I. eranskin gisa dagoen eredu normalizatuaren arabera; eskabideak Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Giza Eskubideen Zuzendaritzan aurkeztu beharko dituzte (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz), nahiz pertsonalki nahiz Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako bideetako bat erabiliz.

2.– Eskabidearekin batera honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

a) Eskabidea sinatu duen pertsonaren Nortasun Agiri Nazionalaren –NANaren- fotokopia.

b) Ordezkari gisa eskatuz gero, ordezkotza hori egiaztatzen duen agiria; edo erakundearen organo eskudunak egindako egiaztagiria, sinatzaileak erakunde horren izenean jarduteko daukan gaitasuna egiaztatzen duena.

c) Proiektuaren memoria xehatua; bertan honako hauek zehaztu beharko dira: helburua, metodologia, diru-laguntza jaso lezaketen pertsonak —sexuen, lurralde-eremuaren eta egingo diren jarduerak gauzatzeegutegiaren arabera antolatuz egingo da desagregazioa — eta genero-ikuspegia nola hartuko den kontuan.

d) Proiektu hori gauzatzeak eragingo duen kostuaren aurrekontua, partiden arabera banakatua; bertan, pro-

Artículo 2.– Dotación económica.

1.– La dotación económica destinada a este Programa de subvenciones es de trescientos treinta y un mil un (331.001,00) euros, con cargo a la partida prevista en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el año 2009.

2.– La cuantía de la ayuda se fijará teniendo en cuenta los criterios establecidos en el artículo 6 de la presente Orden, pudiendo alcanzar hasta el 85% del presupuesto que resulte aprobado para cada programa presentado. El 85% del presupuesto aprobado es el presupuesto depurado.

3.– Del importe total de la subvención concedida, el 10% podrá destinarse a gastos administrativos y de funcionamiento, excluidos sueldos y salarios, salvo que aquéllos fueren sustanciales para el desarrollo del programa y así constare en Memoria explicativa.

Artículo 3.– Solicitantes.

Podrán solicitar las ayudas objeto de la presente Orden los Ayuntamientos y entidades locales públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Artículo 4.– Presentación y formalización de solicitudes.

1.– Los Ayuntamientos y entidades locales interesadas en tomar parte en esta convocatoria deberán presentar las solicitudes debidamente cumplimentadas en el plazo de un mes, a contar desde el día siguiente al de la publicación de esta Orden, conforme al modelo normalizado que figura como anexo I, en la Dirección de Derechos Humanos del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social del Gobierno Vasco, c/ Donostia-San Sebastián, n.º 1, 01010 Vitoria-Gasteiz, bien personalmente o bien por cualquiera de los medios establecidos en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

2.– Dicha solicitud se acompañará de la siguiente documentación:

a) Fotocopia del Documento Nacional de Identidad-DNI- de la persona que firme la solicitud.

b) Documento acreditativo de la representación que se ostenta cuando se actúe con tal carácter o certificado del órgano competente de la entidad, que acredite la capacidad del/la firmante para obligarse en nombre de la misma.

c) Memoria detallada del Proyecto, especificando el objeto, metodología, potenciales personas destinatarias haciendo la desagregación por sexos, ámbito territorial y calendario de realización de las actividades a desarrollar, así como también el modo en que se prevé incorporar la perspectiva de género.

d) Presupuesto, desglosado por partidas, del coste que la ejecución de tal Proyecto conlleve, haciendo

iektua finantzatzeko gainerako bideak, baleude, zehaztuko dira (II. eranskina).

e) Diruz laguntzeko eskatzen den jarduera bererako eskatutako beste edozein diru-laguntzen zerrenda (II. eranskina), bertan bereziki aipatu beharko da zein administraziori edo erakunde publikori eskatu zaizkion diru-laguntza horiek, baita eskabideen egoera ere (ukatu diren, ebazteke dauden eta onartutako zenbatekoak). Horrelakorik egon ezean, zinpeko aitorpena aurkeztu beharko da, honako hau zehaztuz: diru-laguntza jasotzeko aurkeztutako programetarako ez duela beste inongo laguntzarik eskatu.

f) Proiektua gauzatzeko erakunde eskatzaileak dituen baliabide materialak eta giza baliabideak adierazi beharko dira; horretaz gain, honako hauek ere adierazi beharko dira: alde batetik, erakundean ba ote dagoen berdintasunaren alorrean trebatuta dagoen edota ibilbidea duen pertsonarik; eta, beste alde batetik, boluntario gisa jarduten duten pertsonen kopurua. Inolako ordainsaririk jaso gabe Proiektuan laguntzen dutenak hartzen dira boluntariotzat.

g) Agindu honen III. eranskinean azaltzen den dokumentuaren jatorrizko bi ale, dagokion banku-erakundeak eta eskatzaileak behar bezala zigilatuak eta sinatuak.

h) Identifikazio Fiskaleko Kodearen fotokopia.

3.– Era berean, programa edo jarduera hobeto balioztatzeko eskatzaileek egokitzat jotzen duten beste edozein dokumentazio osagarri aurkeztu ahal izango da.

4.– Jarduerak gauzatuta baldin badaude, egindako gastuak justifikatzeko behar diren dokumentu guztiak aurkeztu beharko dira, Agindu honetan eskatzen den moduan.

5.– Espedientea behar bezala osatzeko egokitzat hartzen dituen dokumentuak eta azalpenak eska diezazkioke Giza Eskubideen Zuzendaritzak eskatzaileari. Gainera, eskatzaileak emandako datuak ere egiaztatu ahal izango ditu.

5. artikulua.— Eskabidean egindako akatsak zuzentzea.

Giza Eskubideen Zuzendaritzak ikusten badu eskatzaileek aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe dagoela edo daturen bat falta dela, hamar eguneko epea emango die akats horiek zuzentzeko. Emandako epean eskatutakoa egiten ez badute, eskabideari uko egin diotela ulertuko du, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71. artikuluan agindutakoaren arabera (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zen lege hori).

6. artikulua.— Eskabideak aukeratzea.

1.– Laguntzak emateko proposamena Epaimahaiak egingo du. Adierazitako Epaimahaia osatzen dutenak honako hauek dira:

constar los demás medios de financiación del mismo, si los hubiere (anexo II).

e) Relación de cualesquiera otras ayudas solicitadas con destino a la actividad para la que se solicitare la subvención (anexo II), en la cual habrá de hacerse referencia a las administraciones o entidades públicas o privadas a las que se hubiere solicitado, así como el estado de las mismas (denegadas, pendientes de resolución, concedidas e importes). En caso contrario, declaración jurada de no haber solicitado ninguna otra ayuda para los programas presentados a subvención.

f) Indicación de los recursos materiales y humanos con los que cuente la entidad solicitante para llevar a cabo el Proyecto, indicando si la entidad cuenta con personas con formación y/o trayectoria en materia de igualdad y haciendo constar el número de personas que actúan como voluntarias, entendiendo como tales aquéllas que colaboran en el Proyecto sin percibir remuneración alguna.

g) Dos originales del documento que figura como anexo III de esta Orden, debidamente sellados y firmados por la entidad bancaria correspondiente y por la persona solicitante.

h) Fotocopia del Código de Identificación Fiscal.

3.– Asimismo, podrá presentarse cualquier otra documentación complementaria que las personas solicitantes estimaren pertinente para la mejor valoración del programa o actividad.

4.– En el caso de actividades ya realizadas, deberá aportarse toda la documentación dirigida a justificar los gastos efectuados, en la forma exigida por la presente Orden.

5.– La Dirección de Derechos Humanos podrá recabar del solicitante cuantos documentos y aclaraciones considerare necesarios para completar el expediente, así como efectuar las comprobaciones oportunas de los datos aportados por el mismo.

Artículo 5.– Subsanación de defectos de la solicitud.

Si a la vista de la documentación presentada por las personas solicitantes, la Dirección de Derechos Humanos comprobare que la misma es incompleta o que careciere de algún dato, concederá a aquéllos un plazo máximo de 10 días para la subsanación de los defectos detectados, con la indicación de que, si así no lo hicieren, se les tendrá por desistidos de su petición, de conformidad con lo previsto en el artículo 71 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero.

Artículo 6.– Selección de solicitudes.

1.– La propuesta de concesión de ayudas se realizará por un Tribunal, integrado por las personas que a continuación se relacionan:

Presidentea:

– Giza Eskubideen zuzendaria, kalitatezko botoa izango du, edo hark eskuordetzen duena.

Mahaikideak:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko presidentea edo hark eskuordetzen duena.

– Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordeko presidentea edo hark eskuordetzen duena.

– Hezkuntza Saileko Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria edo hark eskuordetzen duena.

– Kultura Saileko Gazteria zuzendaria edo hark eskuordetzen duena.

– Terrorismoaren Biktimei laguntzeko zuzendaria edo hark eskuordetzen duena.

– Emakundearen (Emakumearen Euskal Erakundea) idazkari orokorra edo hark eskuordetzen duena.

Giza Eskubideen Zuzendaritzako teknikari bat izango da idazkaria; Giza Eskubideen zuzendariak izendatuko du.

2.– Diru-laguntzak emateko eta horien zenbatekoa ezartzeko, baldintza horiek biltzen diren hartuko da kontuan, eskabidearen datuen eta kasu bakoitzean zehaztuko den puntuazio-eskalaren arabera.

a) Proiektuak eskaintzen duen aukera edo interes soziala. Proiektua aintzat hartzeko, honako hauek ere kontuan hartuko dira, hala badagokio: proiektua egokia ote den 2008-2011 aldiko bakean eta giza eskubideetan oinarritutako Hezkuntzaren alorreko Euskal Planaren esparruan garatuko diren helburuak, ildo estrategikoak eta ekintzak bultzatzeko eta sustatzeko: 0-10 puntu.

b) Gauzatuko den programaren edo jardueraren originaltasuna eta potentzial estrategikoa programa edo jarduera gauzatuko den arloan eta egon litekeen hartzaile kopurua; horretaz gain, generoaren ikuspegia baloratuko da, betiere Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen 20.2 artikuluaren eta Bakean eta Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntzaren alorreko Euskal Planaren arabera: 0-10 puntu.

c) Proiektuarekin jarraitzeko borondatea eta estrategia integrala, iraunkorra eta denbora luzean eutsiko zaiona ezartzeko duen potentzialtasuna: 0-5 puntu.

d) Eskolako hezkuntza-eremuarekiko eta udalerriko gizarte- eta hezkuntza-arloko sarearekiko koordinazio-maila: 0-5 puntu.

e) Finantziazio-iturriak: 0-5 puntu.

f) Giza Eskubideen nazioarteko erakundeek eta, bereziki, Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goikomisarioaren Bulegoak bultzatutako esku-hartze ildo, estrategia eta helburuekiko koherentzia-maila —eta horiek kontuan hartzea—: 0-5 puntu.

Presidente:

– Director de Derechos Humanos, quien ostentará voto de calidad, o persona en quien delegare.

Vocales:

– Presidente del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco o persona en quien delegare.

– Presidente de la Comisión de Derechos Humanos del Parlamento Vasco o persona en quien delegare.

– Director de Innovación Educativa del Departamento de Educación o persona en quien delegare.

– Director de Juventud del Departamento de Cultura, o persona en quien delegare.

– Directora de Atención a las Víctimas del Terrorismo o persona en quien delegare.

– Secretaria General de Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea- Instituto Vasco del a Mujer o persona en quien delegare.

Actuará como Secretario/a un/a Técnico/a de la Dirección de Derechos Humanos, designado/a por el Director de Derechos Humanos.

2.– Para la concesión de las subvenciones y la fijación de su cuantía, se valorará la concurrencia de estas condiciones, según datos de la solicitud y a tenor de la escala de puntuación que se especifica en cada caso:

a) La oportunidad o interés social del Proyecto. Para valorar este último se tendrá en cuenta también, en su caso, su idoneidad para facilitar e impulsar los objetivos, líneas estratégicas y acciones a desarrollar en el marco del Plan Vasco de Educación para la paz y los derechos humanos 2008-2011: de 0 a 10 puntos.

b) La originalidad y potencial estratégico del programa o actividad a desarrollar en el área en que la misma esté prevista y el número de destinatarios potenciales, también se valorará la perspectiva de género, de acuerdo con el artículo 20.2 de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y al Plan Vasco de Educación para la Paz y los Derechos Humanos: de 0 a 10 puntos.

c) La voluntad de continuidad del Proyecto y su potencial para determinar una estrategia integral, permanente y sostenible en el tiempo: de 0 a 5 puntos.

d) El grado de coordinación con el ámbito educativo escolar y el tejido socio-educativo del municipio: de 0 a 5 puntos.

e) Fuentes de financiación: de 0 a 5 puntos.

f) Grado de coherencia con -y toma en consideración de- las líneas de intervención, estrategias y objetivos de los organismos internacionales de Derechos Humanos y, especialmente, de la Oficina de la Alta Comisionada de las Naciones Unidas para los Derechos Humanos: de 0 a 5 puntos.

3.– Diru-laguntza esleitzeko, eskabideak 20 puntuko gutxieneko puntuazioa gainditu beharko du, aurreko baremoen arabera.

4.– Aukeratutako proiektu bakoitzari dagokion laguntzaren zenbatekoa ezartzeko banaketa proportzionalaren sistema aplikatuko da, eta sistema horren arabera, proiektu bakoitzerako diru-laguntzaren zenbatekoa artikulu honetako 2. puntuan ezarritako irizpideak aplikatzearen ondorioz balioespen-fasean lortutako puntuazioaren arabera zehaztuko da. Puntuazioa portzentaje bihurtuko da, eta portzentaje hori araztutako aurrekontuaren gainean aplikatuko da.

5.– Diru-laguntzak ematea eta ordaintzea baldintzatuta geratuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak ematen dituen izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan dirua itzultzeko edo zehapenen bat ezartzeko espedientea hasi baldin bada, eta oraindik izapideak amaitu gabe baldin badaude, prozedura hori burutu arte.

7. artikulua.— Kudeaketa, ebazpena, errekurtsoak, ebazteko epea eta publizitate-prozedura.

1.– Giza Eskubideen Zuzendaritzari dagokio deialdi honen kudeaketa-lanak egitea.

2.– Giza Eskubideen zuzendariak berariaz emandako ebazpenaren bidez eman edo ukatuko dira Agindu honetan aurreikusitako diru-laguntzak, Kalifikazio Epaimahaiak egindako proposamena kontuan hartuta. Ebazpen horrek administrazioarekiko bidea agortzen ez duenez gero, interesdunek Gora Jotzeko Errekurtsoa aurkez diezaiokete Justizia sailburuordeari, hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, betiere azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

3.– Agindu honen babesean aurkeztutako eskabideak ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea lau hilabetekoa izango da, Agindu hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe hori igarotakoan, esanbidezko erabakirik eman ez bada, eskabideak ezetsitzat hartu ahal izango dira, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako; hala ere, Administrazioak esanbidezko ebazpena eman behar du.

4.– Publizitate-printzipioa betetzeko, Giza Eskubideen zuzendariak emandako ebazpenaren arabera, honako hau emango da jakitera Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian: alde batetik, dekretu honen babesean diru-laguntza zein udalek eta toki erakundek jaso duen eta zenbateko laguntza jaso duten, eta, bestetik, zein udali edo erakunderi emandako diru-laguntzak aldatu diren. Nolanahi ere, ebazpenak berariaz eta banan-banan ere jakinaraziko da.

3.– La adjudicación de la subvención requerirá que, de acuerdo con los baremos anteriores, la solicitud supere la puntuación mínima de 20 puntos.

4.– Para la determinación del importe de la ayuda que correspondiere a cada uno de los proyectos seleccionados se aplicará un sistema de reparto proporcional, en virtud del cual la cuantía subvencionada para cada proyecto se fijará teniendo en cuenta la respectiva puntuación que, en aplicación de los criterios determinados en el punto 2 de este artículo, hubieran obtenido en la fase de valoración. La puntuación se reconvierte en porcentaje y ese porcentaje se aplica sobre el presupuesto depurado.

5.– La concesión y abono de las subvenciones quedarán condicionados a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que se hubiere iniciado con motivo de otras ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y que se hallare todavía en tramitación.

Artículo 7.– Gestión, resolución, recursos, plazo para resolver y procedimiento de publicidad.

1.– Corresponderá a la Dirección de Derechos Humanos la realización de las tareas de gestión de la presente convocatoria.

2.– La concesión y la denegación de las subvenciones previstas en esta Orden se realizará mediante resolución expresa motivada del Director de Derechos Humanos, a la vista de la propuesta elevada por el Tribunal Calificador. Dicha resolución no agota la vía administrativa y contra la misma cabe interponer recurso de alzada ante el Viceconsejero de Justicia, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente a aquél en que tuviere lugar la notificación, conforme a lo dispuesto en los artículos 114 y 115 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre.

3.– El plazo máximo para resolver y notificar las solicitudes presentadas al amparo de esta Orden será de cuatro meses, a contar desde el día siguiente al de la publicación de esta Orden. Transcurrido dicho plazo sin que se hubiere dictado y notificado resolución expresa, las solicitudes se podrán entender desestimadas a los efectos de lo establecido en el artículo 44.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, sin perjuicio de la obligación de la Administración de resolver expresamente.

